



Ba-da an Zubero aldean orri txiki bat. Barkoxe: antxe jaioa dogu Etxahun bertsolari izen aundikoa. Ango illerrian sartzen ba'zara, atetik auzabost bat metrora, ezkerretarik, gurutzatuz aurkituko dozu, onela diñona: «Hemen ehortzia da Pierre Topet Etxahun, 1862'ko urtarrillaren 17'n hila, 76 urthetan».

Beraz, aurten beteten dira aren erioztatik eun urte. Eta gizon entzute aundiko baten eungarren urte-mugan izparkari guztiak gomutarazo ta goratu oi ba'dabe olango jazoera; guk be ez dogu ixillik itxi bear geurearena.

Or ta emen aldizkariak asi dira ar-

taz mintzoz. Oneik gizon gisa so dagioe, zoritxarrez betea, baiña biotz aundiko: areik bertsolari dan alderditik begiratzen dautsoe, Zubero'ko neurtzilari onenetakotzat jorik.

Izan be, gizona zanez berezko akatz eta obenak izan arren, olerkari ta bertsolari dogunez ba-ditu bere obari ta ikuspegi ederrak. Bertsolariak aaztu-samar egon oi dira gure artean: naizta punterengoa izan, urte batzuk igaro ezkerro. (or Muxika'ko gure Urretxindor aundia) aazkor lezara ditugu bialtzen. Etxahun ez, ostera: Etxahun, ilzanetik eun urte joanak izan arren, gogotan dogu oraindik, beratzaz mintzatzzen da oindiño jentea. Eta, onezkero, bai ta mintzatuiko be. Aren olerki ta bertso mamintsu ta giarrak, onezkero, euskal literaturan blei-blei ibilliko yakuz.

Era bitako bertsoak egin euskuzan: irri-bertsoak eta negar-bertsoak. Ortan ut-itu eban gizonkiro bere barren hiurra. Sail bi orreitan ez da errez aren pareta eltzea. Berezko gar eta sena eban gogo-barrenean; au da, benetako euskal bertsolari genduan.

Aren bertso-sailla mugaz andik nai-ko ezaguna da: emendik ez, ostera. Danak hilduma eder batean, bere bizitz-xeetasun urtenenakaz batera, argitara emonda oso ederto legokez. Ez al dogu olangorik egingo bere eun urte-buru onetan?